



ORIGINALAK BIDALTZEKO EGILEENTZAKO JARRAIBIDEAK

1. Testuen baldintza orokorrak

Testu bat idazteak inplikatzeko du egileak baldintza hauek bete behar dituela:

- Testuek aurrerago zehaztuko diren baldintza teknikoak eta orokorrak errespetatu behar dituzte.
- Testuak argitaragabea eta originala izan behar du.
- Egileak bere gain hartzen du testuaren edukia eta originaltasuna.
- Egileak baimenak eduki behar ditu, irudiak edo kopia eskubidearen eraginpean dagoen informazioa erreproduzitzeko.

2. Testuen baldintza espezifikoak

Testuarekin batera, orrialde bat sartuko da datu hauekin:

- Izen-abizenak
- Titulua
- Laneko zentroa edo erakundea
- Posta elektronikoa
- Harremanetarako telefono zenbakia

2.1. Hizkuntza

Izenburua, laburpena eta gako hitzak EAEko bi hizkuntza ofizialetan (Euskara eta gaztelania) egongo dira, eta ingelesez. Testuan egileak edozein hizkuntza erabil dezake, baina bere ama hizkuntza lehenetsiko du.

2.2. Luzapena

Testu teorikoak eta testu deskriptiboak bereizten dira.

- Testu teorikoak: 3.000 eta 4.500 hitz artean
- Testu deskriptiboak: 1.000 eta 1.500 hitz artean

2.3. Izenburua, azpi-izenburua eta egileak

Izenburuak eta azpi-izenburuak testuaren edukia deskribatuko dute, eta, gehienez ere, 150 karaktereko luzera izango dute, tarteak barne. Egileei dagokienez, izen-abizenak emateaz gain, haien titulua, laneko erakundea edo zentroa eta helbide elektronikoa adieraziko dira.

2.4. Laburpena eta gako hitzak

Testu bakoitzarekin batera, laburpen bat egingo da, non aztergaia laburbildu eta ondorioak aurreratuko diren. Laburpena lehen adierazitako hiru hizkuntzetan emango da, eta 200 hitzeko luzera izango du, gehienez.

Bost gako hitz zehaztuko dira, gehienez ere, testuaren izenburuan errepikatzen ez direnak. Jakintzat ematen diren hitzak saihestuko dira, hala nola arkitektura, hirigintza, iraunkortasuna, etab. Laburpena bezalaxe, gako hitzak aipatutako hiru hizkuntzetan entregatuko dira.



2.5. Testua

Testuak, hala behar bada, elkarren segidan zenbakitutako ataletan antolatuko da (1., 2., etab.). Azpi-atalak egonez gero, honela zenbakituko dira: 2.1., 2.2., etab.

Estilo pertsonala edo inpersonala erabil daiteke, egilearen nahierara. Halere, testuen aztertzaileengan eraginik ez izateko, egileak hirugarren pertsona erabiliko du bere lanari erreferentzia egitean.

Testuaren zatiren bat nabarmentzeko letra lodia erabiliko du, eta aipuetarako, berriz, letra etzana.

2.6. Aipuak

Letra etzanez jarriko dira, eta testuaren ondoren, 35 hitz baino gutxiagokoak badira. Kasu horretan ez dira komatxoak jarriko. Aipuak 35 hitzetik gorakoak badira, beste paragrafo batean jarriko dira, letra etzanez eta komatxo ingelesaren artean (" "). Aipuetako testuaren zati bat ezkutatu dela adierazteko kako zuzenen arteko etenpuntuak erabiliko dira.

Aipu bakoitzarekin batera, egilearen lehen abizena eta erreferentziazko testuaren argitaratze urtea emango dira (egilea, urtea). Aipatutako testua erreferentzia bibliografikoetan zehaztuko da.

2.7. Oin oharrak

Oharrak testuaren amaieran jarriko dira, eta zenbaki arabiarrez adieraziko.

Oharrak ez dira erabiliko aipuen ondoan agertu beharreko erreferentzia bibliografikoak adierazteko.

2.8. Ilustrazioak

Testu bakoitzean, gehienez ere, 10 irudi jar daitezke, eta gutxienez, bat. Irudiak elkarren segidan zenbakituko dira, zenbaki arabiarrez erabilita. Testuan irudi bakoitzari erreferentzia egingo zaio honela: (1. irud.), (2. irud.), etab. Irudiak argitalpenean izango duen posizioa maketazio fasean erabakiko da.

Irudi bakoitzaren ondoan, argazki oin bat jarriko da, beste fitxategi batean emango dena.

Irudiak tiff formatuan entregatuko dira, gutxienez 300 dpi-ko bereizmenez. Baldintza horiek betetzen ez dituzten irudiak berehala baztertuko dira.

2.9. Taulak

Testu bakoitzak, gehienez ere, hiru taula izango ditu, eta beste fitxategi batean entregatuko dira. Taula bakoitza zenbaki arabiar batez identifikatuko da, eta elkarren hurrenean joango dira (1. taula), (2. taula), etab. Nomenklatura berberaz adieraziko da haren kokalekua testuan.

2.10. Erreferentzia bibliografikoak

Aipu eta erreferentzia bibliografikoetarako **Harvard** sistema erabiliko da. Horren inguruko zehaztapenak web honetan daude:

http://www.prigepp.org/congreso/documentos/Sist_de_citas_ref_bibl_Harvard.pdf



3. Artikuluak bidaltzea

Lan bakoitzeko kopia hauek bidaliko dira formatu digitalean:

- ✓ Kopia osoa, egilea identifikatzeko orria barne, .doc formatuan. Fitxategiaren izena izenburuaren laburdura batek eta hiru hitzek osatuko dute, gehienez ere.
- ✓ Kopia partziala .pdf formatuan, aztertzaileei bidaltzeko. Kasu horretan, ez da bidaliko egileen identifikazio orria, anonimatu bermatzeko. Fitxategiaren izena aurrekoaren berbera izango da, baina aurretik azterketa hitza izango du (ad: azterketa_fitxategiaren izena).

Taula ere beste fitxategi batean bidaliko dira, .doc formatuan. Fitxategiaren izena aurrekoaren berbera izango da, baina aurretik *taulak* hitza izango du. (adb: taulak_fitxategi izena). Aztertzaileei bidaliko zaien pdf bertsioan, taulak testuaren barruan txertatuko dira.

Irudiak beste fitxategi batean entregatuko dira, .zip edo .rar luzapenarekin. Fitxategiaren izena testu fitxategiaren berbera izango da, baina aurretik *irudiak* hitza jarriko zaio (adb: irudia_fitxategi izena). Irudi bakoitzari dagokion fitxategiari izena jartzean, testu fitxategiaren izenari ilustrazio bakoitza identifikatzeko sigla gehituko zaio (adb: 1. irud._fitxategi izena, 2. irud._fitxategi izena, etab.).Taulekin egin bezala, azterketarako bertsioan, irudiak testuan txertatuko dira dagokien kokalekuan.

Irudiak dituen .zip edo .rar fitxategiaren barruan, .doc fitxategi bat jarriko da, eta horren barruan ilustrazioen argazki oinak jarriko dira.

Dokumentu horiek guztiak helbide elektronikoa honetara bidaliko dira:
coleccionmetodologias@gmail.com